

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroarekin harremanetan egoteko bide nagusia online bidea da, bezero nagusia ikasle gazteak direnez, haiekin harremanetan egoteko biderik egokiena dela ikusten dugulako.

Ordenagailuen eta mugikorren bidez, gure bezeroek haien app-aren kontuarekiko laguntza pertsonalizatua jasoko dute zalantzak argitzeko. Gainera, gure aplikazioan ohiko galderari buruzko aholkuak idatzita izango ditugu gure bezeroei erabilgarriak izango diren aholkuak izango dira.

Zerbitzuak ez dira automatizatuak izango, ohiko galderen erantzunak izan ezik, beste zerbitzu guztietan laguntza pertsonalizatua jasoko du gure bezeroak eta bere galderari buruzko berehalako erantzun erabilgarria eta ulerterraza jasoko du, nahiz eta gure app-a nahiko efizientea eta erabiltzeko erraza izan.

